


# URETAKO SEGURTASUNA ETA SALBAMENDUA

1. Bainua hartuko duzun lekua ezagutzen duzula ziurtatu. Begiratu, sartu baino lehen, nola eta non dagoen hondoa; baita olaturik edo korronterik ba ote dagoen ere. Natur ingurune ezezagunetara joatekotan, aurrez informazioa bildu.




2. Igeri egiten ez badakizu, ez bainatu bakarrik, esan sorosleari zuregan arreta jartzeko eta ez zaitez ertzetik urrundu. Mugitu beti igerilekuaren ertzaren pare-paretik.




3. Errespetatu, beti, instalazioko segurtasun-arauak eta soroslearen oharpenak.

## IGERILEKUETARAKO ARAU OROKORRAK:


- 🐟 Ez egin bultza besteei.
- 🐟 Ez murgildu inor azpian dagoen begiratu arte.
- 🐟 Ez ibili ertzetik korrika, irristatzea erraza baita.
- 🐟 Ez urperatu inor jolasean.
- 🐟 Bete higiene-arauak.
- 🐟 Ez urrundu bazterretik.
- 🐟 Ez egin urpean igeri ezagutzen ez dituzun hondoetan edo eskailera inguruetan, ezta oztoporen batek harrapatuta gera zaitzekeen lekuetan ere.
- 🐟 Natur inguruneetan, bainatu zaintzapeko eremuetan eta bazterretik gertu.



4. Busti zaitez uretan sartu baino lehen. Ohitu zure gorputza, poliki-poliki, tenperatura berrira:  
\*Hotz handia baduzu, irten berehala.




5. Errespetatu digestioaren bi orduak, jan ostean bainatzeko ohiturarik ez baduzu.  
\*Sartu uretan, beti, pixkanaka-pixkanaka.  
\*Ez jan ugari bainatu aurretik.



6. Zaindu haur txikiak gertutik eta, ohartarazi azkar soroslea arriskuren bat ikusten baduzu.  
\*Ez da ur gehiegi behar itotzeko.  
\*Ez dute arriskurik ikusten.



7. Baten bat arriskuan ikusten baduzu, jokatu zuhurtziaz.  
\*Eskatu sorosleari laguntza eta zu baino hobeto prestatutako inor ez badago, aztertu zure aukerak eta eskura dituzun baliabideak uretan murgildu baino lehen.  
\*Okerragoa da, baten ordez, bi itotzea.



8. Arriskuan bazaude, saiatu lasai egoten.  
\*Gorputz erlaxatu batek, birikak airez beteta dituela, ahoa eta sudurra uretatik kanpo edukitzeko beste flotatzen du. Eskatu laguntza eta fidatu laguntzera joaten zaizkizunekin.

